

Manteroak

Koldo Sagasti

Hamabi urte dira Ibrahim Euskal Herrira iritsi zela. Beste 126 pertsonarekin batera txalupa batean ontziratu zen Senegaletik Kanarietara, zazpi eguneko bidaia arriskutsuan. Gasteizera heldu eta ordu gutxira, herrikide baten laguntzaz, kaleko salmentan hasi zen. Harekek utzi zion lehenengo salgaiak erosteko dirua. Ez zen, inondik inora, familiako lantegia atzean utzitakoan gogoan zuen ogibidea, baina beste zeregin hoberik lortu artean abiapuntua izan zitekeen. «Ni langilea naiz, ez naiz hona etorri eskean ibiltze-

ko», errepikatzen zuen harro. Diskoak saltzen hasi zen. Bazekien jarduera ilegala zela; baina horrek, akaso, ahalbidetuko zion bestelako produktuetara pasatzea. Halaxe izan zen. Gero ikasi egin zuen eta musu truk praktikak egin zituen lantoki berean kontratatu zuten. Uda honetan, hedabide ofizialeetan, salmenta ibiltarian aritzen direnen aurkako kanpaina sutsua burutu dute. Jomugan jarri dituzte. Euren jarduera ilegala dela leporatzen diete, baina ez da Wallapopen bidez edozein produktu saltzen duenarena baino ilegalagoa.

Bertako merkataritza txikia kaltetzea egozten diete; baina ez dute Inditex, Amazon, Primark edota El Corte Inglesek baino gehiago kaltetzen, ezta herri eman ere. Salerosketa ez-arautu horretan aritzen direnek eskura duten modu bakarrean aurrera atera baino ez dute egiten. Ez ziren ontziratu hil ala biziko bidaia batean kalez kale galtzerdiak saltzen ibiltzeko. Baina bestelako helburu hobeak lortu bitartean, kale salmenta denik eta abiapunturik dui-nena izan daiteke, Ibrahim bezala, eskean ibiltzeko etorri ez denarentzat. •

Agurra

Mirari Martiarena
Iraola

Imanol Agirretzek agur esan dio bere futbol ibilbideari. Penaz hartu dut albistea, badakidalako agur esateko erabakiaren atzean sentimendu zurrumbiloa izaten dela. Baina badakit, era berean, norbere buruarekin zintzo izateko eta aurrera egiteko onena dela. Behin erabakia hartuta, noiz eta nola esan ere ez da erraza izaten. Kontraesana baitirudi irailean, kurtso hasieran, zerbaiti agur esatea. Irailaren 1eko GAUR8ko alean argitaratuko da oraingoz nire azken zutabea. Hauxe da, beraz, despedida. Benetan

eskerturik nago emandako eta izandako aukeragatik. Ezetz esaten ez nekielako hasi nintzen bertan idazten eta ez pentsa 2015etik hona arlo horretan gauzak askorik aldatu direnik. Baina agur esateko beharra sentitu dut. 42 hilabetez nahi nuena kontatzeko aukera izan dut orrialde honetan. Batzuetan azaletik, bestetan barrutik eta zenbaitetan erraietatik. Ordenagailu aurrean malkotan idatzi izan ditut nire bizipenak, gehiegi biluzi izanaren sentsazioarekin. Ez dizuet gezurrik esango: ez naiz idatzitako zutabe guztiekin

gustura geratu, baina beti ezin da bete-betea asmatu. Eskerrik asko irakurle, hilean behin nire hitzak irakurtzeko tartea hartu duzulako. Bereziki zuri Igor, fin-fin irakurri dituzulako guztiak; nire hileroko bisita egiteko modua izan da. Horrek ez du esan nahi hemendik aurrera nire berri izango ez duzunik. Eta nola ez, idazten hasi nintzenean gaizki egongo zen beldurrez zutabea aurrez jasotzen zuten lagunei. Hauxe da agurra, beraz, edo gero artea, batek daki! Zoriontsu segi! •